

2020

URTEKARIA




ALTZAPORRU

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEA

2020

URTEKARIA



ALTZAPORRU

EUSKAL HERRIKO
TRIKITIXA ELKARTEA

Harpidedunentzat doako alea

Erredakzioa

Irune Elizagoien

Koordinazioa eta ekoizpena:

Andoitz Antzizar

Diseinua eta maketazioa:

Antza S.A.L.

Inprimaketa:

Antza S.A.L.

Lege gordailua:

D 01362-2020

Euskal Herriko Trikitixa Elkartea
Allemendi 1
20800 Zarautz
Gipuzkoa
Tel.: 943832828

Emaila:

trikitixa@trikitixa.eus

Webgunea:

www.trikitixa.eus



NEGUA

- 5 Albisteak
- 7 Galbahea
- 7 Atzera begira
- 8 Argitalpen berriak
- 8 Iritzi artikulua

UDABERRIA

- 9 Albisteak
- 11 Galbahea
- 11 Atzera begira
- 12 Iritzi artikulua

UDA

- 15 Albisteak
- 17 Atzera begira
- 18 Erreportajea: Joxe Manuel Agirre
- 20 Galbahea

UDAZKENA

- 21 Albisteak
- 24 Galbahea
- 25 Argitalpen berriak
- 27 Hamaika ikusteko!

Hemezortzi urtetan zehar, *Altzaporru!* buletina argitaratu izan du Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak, trikiti munduan gertatzen ziren albiste eta kontuak bilduz. 2001eko apirilean abiatu genuen ekimen hura eta, lau hilabetez behin, urte guzti hauetan bazkide izan direnek eta izan garenok etxean jaso ditugu 75 ale.

2001eko lehen alea EHTEk Azkoitian egoitza zuela argitaratu zen. 75 aleetan zehar, hainbat kolore eta hainbat forma izan ditu buletinak, eta beste hainbeste eskuen idazketak eta begien galbaheak ere pasa ditu. Egoitza bera ere Zarautze-
ra igarotzen ikusi zuen *Altzaporru!*k eta, berarekin, bazkideok.

Askotan gertatu ohi den moduan, aldaketa eta berrikuntzak onerako izango direlakoan, 2020 honek azken urteetako hausnarketen lehen emaitza ekarri du: 2021ean burutuko diren berrikuntzekin batera, urtean lau buletin izan direnak eskuartearen daukazun urtekaria osatzera pasa dira, jasotzen zenituen lau *Altzaporru!*ak lau urtarotan banatutako eskuliburu bakarrean daukazazu.

Urte aldrebes honek trikitiari eman dizkion albisteekin eta bestelako edukiekin betetako urtekariaz goatzera gonbidatzen zaitugu, beraz. Eta urte berriarekin etorriko diren aldaketei adi egotera eta hauetan parte hartzera dei egiten dizugu.

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak

NEGUA



Kupela taldearen bidea, amaituta

📍 Aia

🕒 Abenduak 29

15 urte inguruko ibilbidea izan duen Kupela talde ezagunak ez du erromeria gehiagorik eskainiko. 2019ko abenduaren 29an egin zuten agurreko emanaldia Aiako Arizterrazun. Erromeria zaleek ongi aprobetxatu zuten azkeneko aukera hura, Arizterrazuko plaza gainezka, erromeria gaueko 22:00ak arte luzatuta.



Kupela taldearen azken erromeria.
Argazkia: Ibon Errazu

Rufino Arrola eta Fasio trikitilari bizkaitarren lekukotasunak sarean

📍 Lemoiz / Igorre

🕒 Urtarrilak 24

Rufino Arrola *Andrakako errementaria* eta Bonifazio Arandia *Fasio*, Bizkaiko trikitiaren historian garrantzia handia izan duten bi soinu-joleren testigantzak ahotsak.eus webgunean daude ikusgai. 1909an jaio ziren biak, eta oso gazterik hasi ziren soinua jotzen. Rufinok 14 urterekin izan zuen bere lehenengo plaza Lezaman. 18 urterekin, errementari lanetan hasi zenean, soinua alde batera utzia eduki zuen urte batzuetan, 40 urte pasa ondotik, berriz ere, berreskuratu zuelarik.

Fasiok ere nerabezaroan ekin zion Lemoan iganderoko zitari. Plaza batzuk egin zituen, baina oso urduria zenez, gaizki pasatzen zuela eta, utzi egin zuen. Gerora, berriz ere ekin zion. Rufinok kontatzen zuenez, gerra sasoian trikitiak Bizkaian ez zuen jarraipenik izan. Hori izan omen zen Gipuzkoan trikitilariak ugartzeko eta Bizkaian gutxitzeko arrazoia.

Nafarroako trikiti jaialdia, urteko lehena

📍 Lesaka

📅 Urtarrilak 18

Seigarren edizioa izan du Nafarroako trikiti jaialdiak. Iñorkinak, Irma Karrera eta Jokin Tolosa, Imuntzo eta Aintzane Agirrebeña, Zazpitan Lehenak joteroak (Lohitzune Berastegiren laguntzarekin), Ioar Oteiza, Garazi Erbiti eta Ladis Satrustegi, Iñaki Plaza eta Alex Lopez (Amaiur Luluaga eta Claudia Lopezen laguntzarekin), eta bukatzeko Iker Goenaga eta Jon Lasa izan dira taula gainean. Aurten parte hartzaileak aukeratzeko aitzakia, "I" letra izan da; letra hori izenaren hasieran duten protagonistak bildu baitira oholtzan. Ildo horretan, Ibon Gaztañazpi ETBko aurkezleak egin ditu jaialdiko gidari lanak.

Nafarroako VII. Trikiti jaialdia.
Argazkiak: Ibon Errazu





GALBAHEA

XABI ABURRUZAGA

Baikor agertu da Xabi gaur egun trikitixa ikasten ari den ikasle kopuruarekin. «Ikasle-kopuruaren harira, esango nuke 90eko hamarkadan gertatu zen moduan, boom bat egongo dela. Garai hartan erromeria asko izan ziren, eskola pila bat, disko anitz... Ostean, beherakada egon arren, trikitia egonkortu egin da eta hainbat lekutan dago: erromerietan, folk zirkuituetan, rock taldeetan, tradizioari eusten dioten trikitilariak, pieza zaharrak berreskuratzen dituztenak...». Xabik garbi ikusten du trikitixa ikasteak ez duela derrigortutako zerbait izan behar eta ikasleek gozatzea lortu nahi du. «Saiatzen naiz trikitia aisialdiaren barruan sartzen, eta esaten diet hau ez dela ikastetxea eta hemen gozatzeko gaudela. Eskola dibertigarria izaten saiatzen naiz, eta euren talde kutunen abestiak ere jotzen ditugu».

Aikor aldizkaria 2020/01/07

XABIER BERASALUZE "LETURIA"

«taka-taka, takata-taka, taka-taka, ta-taka-taka-taka». Hizkuntza arraro bat dela pentsatuko duzue askok, baina Leturia panderoa jotzeko pausoez ari da. «Erraza da. Erritmikoki jotzen zoazen eran, hatzen kriskitinarekin egiten duzun bezala, musikaren gain erritmo hori eramaten zoaz» Argitaratu duen panderoa ikasteko metodoan, hamaika aholku aurkitu daitezke. Hona Xabierrek behin eta berriz errepikatzen duena: «Oso garrantzitsua da denetariko musika entzutea. Zure instrumentua edozein dela ere, musika desberdinei segitu behar zaie».

Goiberri aldizkaria 2020/01/13

KRISTINA SOLANO

«Orain arte, lau abestiko erreperitorio bat genuen, jaialdietan jotzeko. Orain, ia ordubeteko saio bat dugu prestatuta». Oñatiko trikiti jaialdiaren X. urteurrena ospatzeko elkarrekin jotzera gonbidatu zituzten Alaitz Telletxea, Maixa Lizarribar, Amaia Oreja eta Kristina Solano. Jaialdi horren ondotik gehiago etorri dira, ordea, eta bertatik sortu da AMAK taldea. Krisek adierazi du igandeak erabiltzen dituztela entseguak egiteko. «Lanean jartzen garenean oso erraz ateratzen zaigu. Arazoa izaten da lanean jartzeko garaia aurkitzea, agendak ematen baitigu lanik gehien. Laurok ama gara, lana ere badaukagu eta elkartzea asko kostatzen zaigu».

Tolosaldeko Ataria 2020/03/06

LUIS ASTIASARAN

Tolosaldeko soinu konpontzaile bakarra da Astiasaran eta 4000 soinu baino gehiago ditu konponduak. «Soinu bakoitzak bere numerazioa izaten du eta ordenagailuan fitxa bat egiten diet. 4000 soinu baino gehiago konpondu ditut orain arte. Kontua da, agian, soinu bera behin baino gehiagotan ekartzen didatela konpontzeko.» 12 urterekin hasi zen Luis bere kabuz soinuak konpontzen. Bere lanean hobeto trebatzeko 17 urtez joan izan da Italiara bere lanerako xehetasunak ikastera. Lehen bidaietatik bueltan, bere etxean jarri zuen soinuak konpontzeko tailerra. Horrek daukan alde txarraz ere ohartu da: «Niretzat egunak 25 ordu ditu tailerrean banago.(...) Duela gutxi hasi naiz as-teburuak jai hartzen.»

Tolosaldeko Ataria 2020/03/06

atzera begira



ATZERA BEGIRA!

URTARRILA

Iñaki Garmendia Laja

Urtebete pasa da Laja soinu-jole handiak utzi gintuenetik. 2019ko urtarrilaren 12an zendu zen Iñaki Garmendia Laja trikitilari ospetsua 74 urterekin. Askoren ustez zubi lana egin zuen, trikitiaren molde klasikoaren ordezkari agerikoena izanik, baina gazte belaunaldiek ekarritakoa ere txertatuz. Ehunka plaza alaitu zituen, baita gaur egungo soinu-jole askoren irakasle izan ere.





ARGITALPEN BERRIAK

DISKO BERRIA

Eneko Dorronsoro AGIRRE

Eneko Dorronsoro ataundarrak bere bigarren abizena nabarmendu nahi izan du bere bakar-kako lehenengo diskoan. Hortik dator bere diskoaren izena, amari aipamena eginez: *AGIRRE*. Fredi Pelaezek Rhodes pianoarekin lagunduta, Beasaingo Pottoko estudioan grabatutako lana da eta bi aurkezpen kontzertu egin ditu Ataungo San Gregorio auzoko Barandiaran Museoan. Enekok beste musika tresna batzuk jotzen baditu ere, diskoan grabatutakoa zuzenekoetan defenditzeko modukoa izatea nahi duenez, trikiti eta pianoarekin grabatuta daude diskoko 12 abestiak.

IRITZI ARTIKULUA



XABIER ETXANIZ ULAZIA

HAMABOST EGUN

Martxoak hamalau ditu, birus honek ekarriko dizkigun ezusteko ondorioak ezin digeritu eta honakoaz ohartu naiz: telesail amerikarretako protagonista ezkongabeen estereotipo ia guztiak betetzen ditut.

Badut sukaldean zerrikeriaz betetako armairu bat. Baita ohe alboan arropazko mendi baten azpian ezkutaturiko aulki bat ere. Ez dakit zenbat hazbete dituen telebista bat eta sofa bat ere bai. Zorionez, komuneko papera ere erosi berria dut. Hala ere, hozkailuan jatekoa urri. Hainbat garagardo, jogurt batzuk eta pare bat limoi. Azken hauek ginebra eta izotza goxatzeko. Eta haxe da dudana. Nahikoa, momentuz.

Eta eseri naiz sofán. Hartu dut sakon-sakon arnasa eta datorren itxialdia imajinatu dut momentu batez. Badut lana egiteko ordenagailua eta sarea. Hainbat telesail ikusteko plataformaren batera ere harpidetuta nago. Zerrikeria batzuk jango ditut datozen egunetan. Dena kontrolpean.

Baina badakizu zer bait falta zaizunean nola



zimurtzen zaizun kopeta? Bai. Falta dut. Ez dago etxean.

Itxialdiari hasiera eman aurretik egin behar dudaz azkeneko gauza izango da, baina banoa bere bila. Kotxean sartu, eta banketxe batetik milioiak lapurtu ostean ihesean doanaren urduritasunarekin gidatzen dut. Ez naiz jakitun, baina denbora luzez ez ditut hainbestetan ezker-eskuin, gauez, egunez, eguzkiarekin, elurretan eta lanbroz bustiak gurutzatu ditudan bihurgune hauek guztiak berriz zeharkatuko.

Tok, tok! Amak ireki dit atea. Harrituta "hau orain ere jatera zetorren" pentsatuko zuen ziu-rrerik. Baina ez jateko, ezta hurrengo egunetarako tupperrik ere. Trikitixa bizkarrean hartu, eta banoa. Muxu bat amari, eta presaka neurera.

Itxialdia pasatzeko denetik nuela uste, eta garrantzitsuena falta. Honek laburtuko dizkit goiz euritsuak, luzatuko arratsalde eguzkituak. Arinduko laneko kezkak, piztuko dantzarako gogoa. Joko ditut melodia zaharrak eta sortuko doinu berriak.

Eta orain bai. Prest nago. Has dadila itxialdia. Zenbaterako izango da? Gehienez hamabost egun, ezta?



Arizterazu zuzenean

📍 Aia

📅 Apirilak 19

Konfinamendu egoerak eraginda ezinezkoa izan da Arizterazuko iganderoko erromeriekin jarraitzea. Martxoaren 15eko Astiasaran eta Andonegiren saioa bertan behera geratu zen, eta COVID-19ak ez du utzi denboraldia bere ohikotasunean bukatzen. Hala ere, teknologia berriei esker, sare sozialak baliatuz “Arizterazu zuzenean” ekimena aurrera atera da, hainbat trikitilari bikoteen ahalegina eta borondateari esker. Apirilaren 19an hasita, facebook eta instagram baliatuz, zuzeneko saioak eskaini dira ekaina erdira arte. Jendeak harre-
ra ona egin dio ekimenari eta publiko zabalak jarraitu ditu iganderoko saioak. Denboraldiari bukaera berezia eman zitzaion ekainaren 21ean. Bai Arizterazun bertan denboraldian jotako soinu-joleak eta baita online parte har-



Arizterazu zuzenean mosaikoa.
Argazkia: Ibon Errazu

tutakoak ere, denak Arizterazuko oholtzan elkartu eta elkarren segidan hiruna pieza joz, hiru ordu pasako katea osatu zuten sare sozia-
lien jarraitzaileen gozamenerako.

EHTEk YouTubeko kanala hornitu du

📍 Zarautz

📅 Martxoa

Pandemia garaia aprobetxatuz, urtez urte kale-
ratutako Faborez, Geure Kolkotik eta Haziak dis-
ko bildumak osorik Youtuben daude entzungai.

“Txakolina” abestiaren bertsioa, Enok-en eskutik

Enok-ek Urola Kostako Hitza egunkarian argi-
taratutako komiki tira da ondorengoa. Korona-
birusa eta umorea uztartuz “Txakolina” abes-
tiaren bertsioa aurkeztu zuen.

▼ Maxizatzen.eus 2020-04-16



Zumarragako Trikitixak 100 urte

📍 Zumarraga

📅 Ekaina

Zumarragako Trikitixa 1920an jaio zen, Joxe Oriaren eskutik. Garai batean, erromeriak panderoarekin bakarrik egiten ziren eta pandero-jole haietako bat Joxe Oriaren ama izan zen. Amaren pausoak jarraituz hasi zen semea eta soinu-jole askorekin ibili zen, baina beti Zumarragako Trikitixa izenarekin: Etxesa-Korta, Errosta, Kanpazar, Carlos Egiguren, Kandido Beristain, Gorriz eta Joxe Migel Ormazabal. Joxe Oria bere arreba Maria eta haren senararekin bizi zen. 8 seme-alaba izan zituzten eta denak trikitixa giroan hazi ziren. 4 mutilek trikitixa jo zuten: Joxek, Inixiok, Sebek eta Migelek. Oria 1946an hil zen eta ordura arte aritu zen pandero jotzen.

Geroztik, Urteagatarrek beraien osabak hasitako bideari jarraipena eman diote, Ormazabalen laguntzarekin.


Jotzeko moduagatik da ezagun Zumarragako Trikitixa; beraien soinua jotzeko modua berezia izan baita. Diskoak grabatzen ere hasieratik hasi ziren. Nahiz eta garai hartan diskoak grabatzea

ohikoa ez izan, lehenengoa 1922an grabatu zuten Oriak eta Etxesa-Kortak. Joxe Oriaren ilobek ere diskoak grabatu dituzte geroztik.

Gaur egun, Zumarragako Trikitixak hor jarraitzen du: Migel Urteagak, haren seme Kepak eta Mikel Alustiza ilobak osatzen dute taldea. Migelek plazak uzteko asmoa agertu du Zumarragako trikitixak 100 urte bete dituen honetan. Ondotik Mikelek eta Kepak jarraituko dute Joxe Oriak duela mende bat hasitako bidea.



Zumarragako trikitixako egungo 3 kideak.
Argazkia: Goiberri.eus





MIGEL URTEAGA

Migel Urteaga 1939an jaio zen eta gaur egun Zumarragako Trikitixako kide beteteranoena da. Panderoa jotzen inork erakutsi gabe, bere kabuz ikasi zuen «Nire anaiek egiten zutena ikusita ikasi nuen. Ikusi eta ikasi». Berezia da Migelentzat Zumarragako Santa Isabel eguna. «Urteko egun handiena. Bizitza guztian jo dugu bertan. Urtero, gure osaba hasi zenetik. Beste herri batzuetan ere jaitsierak antolatzen dituzte, baina Zumarragakoa bezalakorik ez dago». Bere ibilbidearen bukaera ere gertu ikusten du eta bere plaza kuttunean egitea gustatuko litzaioke «Zumarragako Trikitixak 100 urte bete arte jarraitzea erabaki nuen. Aurtengo Santa Isabel egunean uzteko asmoa nuen. 81 urte ditut!»

Goiberri.eus 2020/05/15

AINARA SAIZAR

Azken aldian Xabi Etxaniz Azkoitiarrarekin jotzen ikusi da Ainara, baina Arizterrazu zuzenean ekimenerako Alaitz Roteta Orioko soinu-jolea aukeratu du. «Herri batetik bestera mugitu ezin dugunez, trikitilariontzat ez da erraza gure betiko bikoteekin jotzea; nire soinu-jolea esaterako, azkoitiarra da. Horregatik, Arizterrazu Zuzenean ekimenean ezohiko bikoteak parte hartzen ari gara. Facebook orrian deialdia egin zuten, eta Alaitz Rotetak proposatu zidan elkarrekin parte hartzea.» Pantaila bati begira erromeria egitea ezohikoa den arren, garrantzitsua ikusten du Ainarak Arizterrazuko erromeriari jarraitzea. «Arizterrazu plaza oso garrantzitsua da trikitilariontzat, bertan ez du edonork jotzen, eta publikoa ere oso zorrotza da. Gainera, ekimen berriarekin lortu dugu itxialdian Arizterrazuko giroari bizi-bizirik eustea»

Karkara.eus 2020/05/16

AGURTZANE ELUSTONDO

Zoriondu eta eskertu egin du Zumarragako Trikitixa beren 100. urteurrenagatik. «Izaera eta estilo propioa dute: errepertorio desberdina, kantaera zaindua, jotzeko beste modu bat. Soinuari beste inork ateratzen ez dion irrintzia ateratzen dio Joxek! Pasioa transmititzen dute. Bereziak dira. Indar handikoak, alaiak, biziak... Imi-taezinak! Gainera, gauza askotan izan dira aitzindari: trikitia kaletartzen, trikitilarien artean ia abestu ere egiten ez zen garaietan soinu-jolea ere kantari jartzen, bikote egonkorak osatzen, diskoak grabatzen... Handiak izan dira eta dira! Gustuko bezain miresgarri zaizkit! Belaunaldien arteko transmisioan giltzarri dira»

Goiberri.eus 2020/05/15



ATZERA BEGIRA!

atzera begira

MAIATZA

Mende laurden Faustino Azpiazu Sakabiren soinu hotsa isildu zela

Duela 25 urte, 1995eko maiatzaren 27an zendu zen Sakabi soinu-jolea. Trikitixa munduan, Gelatxok eta Elgetak pieza berriekin ekarri bazuten iraultza, Sakabi bigarren baten lehen urratsa da. Deitu perfekzioaren bila abiatzea. Deitu soinuari duintasuna ematea. Deitu lanbidea serio hartzea. Horra Sakabiren ekarria.



ELKARRIZKETA

TRIKITIXA KLASEAK ONLINE

Koronabirusaren eraginak

Xabier Alberdi Zabale, Erika Lavillard, Ruben Isasi, Ainhoa Lujanbio eta Gaizka Peñafiel trikitixa irakasleei egun batetik bestera aldatu zitzaizen ikasleekin klaseak emateko zeukaten modua. Urteak daramatzate trikitixa irakas-kuntzan murgilduta, ikasleak banaka zein taldean hartuz, aurrez-aurre, solfeo edota zenbakizko metodoa erabiliz, eta ordu erdiko zein ordubeteko klaseak emanez.

Azkoitia, Elgoibar eta Urrestillako Xabierren ikasleak; Getxo, Barakaldoko, Amurrio eta inguruko herrietako Rubenen ikasleak; Elorrio, Zeanuri, Areatza, Otxandio, Larrabetzu eta Lezamako Gaizkarekin ikasten ari direnak; Hazparne, Ustaritze, Basusarri eta Urruñako Erikaren soinu-jole gazteak eta Ainhoaren Lizarra eta lizaraldekoak, Oteiza, Abartzuza eta Jaitzeko ikasleentzat ere ezohiko ikasturtea izan da, baina gehienek, ongi lan eginez, ezarritako helburuak burutu dituzte.

Bost irakasleek konfinamenduak eraginda trikitixa klaseak aurrera nola eraman dituzten kontatu dute.

Nola bururatu zitzaizuen online irakaskuntza zuen instrumentura ekartzea?

Gaizka Peñafiel: «Hasiera batean uste genuen bi asteko kontua izango zela etxean geratzekoa, baina luzerako zihoala ohartzean, klaseak online eman behar genituela ondorioztatu genuen eta halaxe hasi ginen. Aurrez-aurreko klasea ezinezkoa da etxetik ordezkatzea, baina antzekoena bada konexio birtualarena»

Ruben Isasi: «Duela hiru urte hasi nintzen Skype bidez klaseak ematen Frantzian tesia egiten ari

zen ikasle batekin, eta beraz, etxean geratu behar ginela ikustean, aukera hori ikasle guztiei berehala planteatu nien».

Drive, Skype, Whatsapp, Classroom, Meet... Nola moldatu zarete teknologia berrietara?

Erika Lavillard: «Lehen asteetan, Drive plataforma erabili nuen. Bertan, abestien bideoak zatika grabatu nituen (eskuina, ezkerra eta bi eskuz), baita kantu osoaren audioa ere, batzuetan partitura gehituz. Ikasle guztiek jaso zuten Drive horren esteka eta bakoitzarentzako lan berezi bat eman nuen. Hirugarren astetik aurrera, egoera argitu zen musika eskolatan. Hiru musika eskolatan lan egiten dut, eta ez dute denek gauza berdina eskatzen. Horregatik hasi naiz Skype eta Whatsapp bidez ere klaseak ematen ikasle batzuekin».

G.P.: «Gure kasuan, musika eskolak antolatu zigun plataforma eta Classroom/Meet-en bitartez aritu gara batez ere. Ikasle bakoitzak astero bere tarteak izan du eta gero astean zehar eskatu diet audioak/fitxak/bideoak agintzea jarraipen estuagoa egiteko. Baliabide edo konexio aproposik ez zutenekin telefonoz edo mezu bitartez egin izan dut lan».

Ikasle guztiekin ongi jarraitu al izan dituzue online klaseak?

Xabier Alberdi: «Etxean instrumenturik ez duten bi edo hiru ikaslerekin ezik, beste guztiekin jarraitu dut, bakoitzari bere ordu erdiko banakako klasea emanez».

Ainhoa Lujanbio: «Nik klaseak Lizarra eta inguruko herrietan ematen ditut eta herri txiki askotan interneteko konexioa izateko arazo dezente daukate. Beraz, horiek ez dute klaserik jaso. Besteekin ordu erdiko klaseak eman ditut. Aurrez-aurreko klaseetan ordubete ematen dut, baina ordu bakoitzeko 3 ikasle hartzen ditut normalki».





Online irakaskuntzaren alde on eta txarrak nabarmenak dira

G.P.: «Niretzako aurrez aurreko klaseak ezinbestekoak dira, musika irakasteaz gain, ikaslearen arlo emozionala ere kontutan izan behar dugulako. Hori online klaseekin oso zaila da. Alde onen artean, egia da Classroom bezalako plataformekin materiala elkarbanatzea oso eroso dela eta hor gelditzen dela eskura behar denerako. Gurasoek ere gainbegiratu dezakete eta jarraipena hobetu».

R.I.: «Egoera honetan bestela harremana galduko genukeela, eta aurrera egiteko behar diren azalpenak edo laguntzak ezin izango genituzkeela eman. Bestalde, gure klase emateko moduari buruz hausnartzeko, birplanteatzeko eta hobetzeko aukera bat da. Modu berriak probatzeko beharrak ere geroko baliabide ugari emango dizkigu bai irakasleoi eta bai ikasleei ere».

X.A.: «Klaseak emateko eta jasotzeko era nekagarriago eta astunagoa»

E.L.: «Teknologiak gauza asko ekartzen dizkigu, baina hori oraindik ezinezkoa da. Ikaslearekin jotzea garrantzitsua da eta baita talde klaseetan haiek elkarrekin jotzea ere. Haiek ere lagunekin jotzea faltan bota dute».

Ikasleek emandako erantzunarekin pozik zaudete?

G.P.: «Ikasle batek baino gehiagok ikasturtean zehar baino lan gehiago egin du azken hilabeteetan. Agian etxean egon behar izate horrek bultzatu ditu denbora gehiago trikitiari eskaintzera, aurrerapen harrigarriak ikusi ditudalako ikasle batzuegan. Lehen lan egiten zuenak orain ere bikain lan egin du eta horrek lasai uzten nau, maila mantendu dugunaren seinale da eta. Ikasle ohi asko ere izan ditut inguruan material eske eta horrek bereziki poztu nau, azken batean gure xedea hori delako; bizitza guztirako trikitilariak sortzea».

Ikasleen iritziak zuzenean bildu ditu Erikak: «Konfinamendu denboran, triki eskolarik ez baita izan, nire irakasleak egindako grabaketa baten bidez, trikitixa lantzea segitu dut. Berantago, proposatu nau whatsapp-en bidez kurtsoa zuzenean egitea nire etxetik. Horrela astero segitzen ahal dut harremanetan nire irakaslearekin, berak ikusteko nola aintzinatzen naizen eta niri segurtatzeko ongi ikasten dudala. Ez da beti erraza motibazioa atxikitzea, baina astero elkar lan eginez, saiatzen naiz atxikitzen.» (Maia, 12 urte, Urruña)

Etorkizunean agian lanarekin eta ikasketekin hobeto uztartzeko ikasle batzuk online jarraitu nahiko luketela iruditzen zaizue?

R.I.: «Hainbat egoeratarako "B plan" bikaina dela uste dut. Aurrez aurre egotearekin ezin da alderatu, baina gehiagotan egitea ez dut baztertuko».

E.L.: «Nik ez dut horrela segitzeko asmorik egoera normalizatzean. Klaseak emateak ikasle-irakasle harreman bat sortzea suposatzen du, baita ikasleen artekoa ere»

Pentsatzen zenuten noizbait trikitixa klaseak honela ematera iritsiko zinetela?

X.A.: «Ez, eta arrazoi eta egoera honengatik izango zenik, gutxiago»

G.P.: «Sarritan entzuten dugu urte batzuk barru dena teknologien bitartez egingo dela edo robotek ordezkatzeko gaituztela. Baina niretzako irakaskuntzan hartu-emana ezinbestekoa da; pertsonekin lan egiten dugu eta behar-beharrezkoa da harreman hori. Agian etorkizun batean sistema hibrido bat izango dugu, baina momentuz eraginkorrena asteroko aurrez-aurreko klasea dela uste dut»

R.I.: «Sareak ematen dituen aukerak aprobetxatu behar dira eta aspaldi nuen honelakoetan sartzeko gogo»

Argazkiak: Zabale, Gaizka, Erika, Ruben eta Ainhoa.



Sasi artean Elgeta

FOX-TROTA
MODAN DAGO
PARISEN.

PARTITURARIK
GABE. BELARRIZ
IKASIKO DU
JAXINTOK.

OSTEGUN
GOIZERO.
BI DURO
PIEZAKO.


EGIN DEZAGUN
PROBA, BERAZ!
ENTZUN, GAZTE!



EZ DA POSIBLE!
ENTZUTEN AL DUZU?
FOX-TROTA
JOTZEN ARI DA...
TRIKITIXAREKIN!

ASTOAREN
ARRANTZA
OTE DA GOINU
HORIP?

ZURE LAGUN
HONEK BELARRI
HANDIA DAUKA
BEHINTZAT!



UDA

EKAINAK

21

IRAILAK

21



Kepa Junkera Adarra sariaren irabazle

📍 Donostia

🕒 Uztaila

Donostia Kulturak 2020ko Adarra saria Kepa Junkera musikari bilbotarrari eman dio bere disko-produkzio zabal eta aberatsagatik, baita euskal kulturaren alde egindako lanagatik ere. Hala erabaki du Juan González Andrés kazetariak, Irene Larraza Etxepare Institutuko zuzendariak eta Jaione Askasibar Donostia Kulturako Komunikazio eta Irudi zuzendariak osatutako Aholku Batzordeak. Kepa Junkerak jaso duen saria Marijose Recalde artista nafarraren eskultura bat da.



Argazkia: Kepa Junkera

Xabi Solanoren mural berria

📍 Hernani

🕒 Uztaila

Bàlu Art artistak Ikor Kotx-en argazkian oinarritutako Xabi Solanoren murala egin du Hernaniko Andrekalen. Esku-hartze artistiko eta kultural honek hiru diziplina elkartzen ditu: argazkilaritza (argazki bati bizia emanez eta une horren testigantza bilakatuz), musika (trikitixa, tradizioa, ondarea) eta artea (arte garai-kidea, margoa).



Xabi Solanoren murala Hernanin
Argazkia: Ikor Kotx



ALBISTEAK



Huntza Euskadiko Orkestrarekin

Huntza taldea Euskadiko Orkestrarekin

🕒 Uztaila

Bi urte daramatza Euskadiko Orkestrak euskal artistak eremu sinfonikora eramaten. Zea Mays, Doctor Deseo eta Izarorekin egindako grabazioen arrakasta ikusta, Huntza taldearekin *Lasai Lasai, Olatu bat eta Aldapan gora* abestien bideoklipak grabatu ditu. Miramon-egoitza egin dituzte grabaketak, Fernando Velazquezen gidaritzapean. Gaur egungo talde euskaldun arrakastatsuenetako bat da Huntza, instrumentu tradizionalak (trikitixa, panderoa...) eta pop rock musika uztartzen dituen. Josune Arakistain eta Uxue Amonarrirek jarri dizkiote ahotsa eta trikitixa beren hiru kantuei.

Valentin Aperribai Larrañaga pandero-jolea zendu da

📍 Bergara / Antzuola

🕒 Abuztuak 20

2020ko abuztuaren 22an agurtu dute Antzuolan Bergarako Osintxu auzoko Lesarrisoro baserriko Balentin Aperribai pandero-jolea, urte askoan Antzuolan bizi zena. Antzuolako pandero irakaslea izan zen: herriko gazteak bere etxeko sukaldean hartuz, irratian “sutondoko erromeria” saioaren laguntzarekin erakutsi zien panderoa jotzen. Bere ikasle izandakoak 2009ko apirilaren 25ean Debagoieneko trikiti jaialdiaren barruan omenaldia egin zioten.

Valentin Aperribai Larrañaga
Argazkia: Ibon Errazu



Trikitilari Gazteen Zarauzko XL. Txapelketa

📍 Zarautz

🕒 Irailak 2

Zarauzko Euskal Astearen barruan, irailaren 2an jokatu da trikitilari gazteen XL. Txapelketa Modelo aretoan. 7 bikote izena emanda bazeuden ere, COVID-19ak eraginda, 5 bikote hartu dute parte. Zestoara joan da txapela; Ane Urbietta eta Nerea Lopetegik lehen aldiz parte hartu eta garaipena eskuratu baitute. Bigarren postuan, Irati Arcelus eta Mirari Plazaola geratu dira. Txapelketan parte hartutako beste bikoteak Enaitz Alberdi eta Amets Bilbao, Julen Labaka eta Naiara Dorronsoro eta Maitane Iturriotz eta Eider Amenabar izan dira.

Udaran zehar hainbat txapelketa ospatzen badira ere, pandemiaren eraginez, Zarauzkoa izan da 2020an ospatutako bakarra.



Zarauzko txapelketa

Argazkiak: Ibon Errazu

Zelatungo erromeriak bertan behera

🕒 Iraila

Hernioko magalean, iraileko igandeetan egin ohi diren erromeriak bertan behera geratu dira, bizi den osasun egoeratik. Zelatunek jende asko hartu ohi du iraileko igandeetan, baina koronabirus gaitzak eraginda erromeriarik ez egitea erabaki dute antolatzaileek. 2020an entzun gabeko trikiti doinuez gozatzeko zain egongo dira mendizale eta erromeria zaleak 2021ean.



ATZERA BEGIRA!

IRAILA Mende erdi Trikitilarien I. Txapelketa ospatu zenetik

1970ko irailaren bigarren igandean, 13an hain zuzen, ospatu zen Donostian Trikitilarien I. Txapelketa. Duela 50 urte ospatu zen lehenengo trikitixa txapelketa hartan Faustino Azpiazu *Sakabi* eta Joxe Mari Urbietta *Egañazpi* izan ziren txapeldun, 6000 pezeta eta garaikurrak eskuratuta. Beste bost bikote ere hartu zuten parte txapelketa hartan: Iñaki Garmendia Laja eta Juan Ezenarro *Berastegi*, Tomas Soraluze eta Luxiano Soraluze *Epelde anaiak*, Joakin Sudupe eta Jose Sudupe *Egurrola anaiak*, Tomas Zubizarreta eta Miguel Zubizarreta *Zendoia anaiak* eta Felix Illarramendi *Errota* eta Imanol Arregi *Iturbide*.

Argazkia: 50 urte pasa dira
I. trikitixa txapelketatik



atzera begira



JOXE MANUEL AGIRRE

Pandero koloretsuen aldeko apustua

Joxe Manuel Agirre Arostegi (Tolosa, 1956) pozik dago afizioa ofizio bihurtzeko aukera izan duela. 8 urterekin hasi zen solfeoa ikasten, jarraian txistua izan zuen esku artean, eta 14-15 urterekin dantzari taldean sartu zen. Ondotik, dultzaina jotzeari ekin zion. Garai hartan ez zegoen oraingo aukerarik gauzak erosteko, ezta instrumentu egilerik ere. Danbolinen konponketak, esaterako, bere kabuz egiten zituen. “Beti gustatu izan zait saltseatzea; bai mekanika, bai egurra...”

PIXKANAKA INSTRUMENTUAK EGITERA SALTOA

19-20 urterekin dultzaina danborren egileak faltan somatzen zituen eta pixkana hasi zen dultzaina taldeentzat danborrak egiten, ingurukoak hornitzeko. Hortik, txistulari bandaren perkusio tresnak egiten hasi zen. Danborren molde horiei etekin gehiago ateratzeko, panderoen munduan aukera ona egon zitekeela pentsatu zuen. 1995ean bere afizioa ofizio bihurtu eta familia aurrera ateratzeko modua izan zitekeela ohartu zen Joxe Manuel.

PANDEROEKIN MURGILDUTA

Hasieran panderoak Valentziatik ekartzen ziren, gero Galiziatik ere bai. Hauek nolakoak ziren ikusi eta merkatu ikerketa bat egin zuen Joxe Manuelek. Lanean hasteko material egokia bilatzea ezinbestekoa izan zen.

Egurra

Pinuarekin hasi zen lehenengo, baina hauskorra zela ondorioztatu zuen. Egokia ez zenez, pago egurrezko panderoak egiteari ekin zion. Baina bazuen honek ere alde txarrik; garestiegi ateratzen zen bukaerako produktua. Beraz, urkian topatu zuen bilatzen ari zen materiala. Gaur egun, urki eta pago egurrezko panderoak egiten ditu, baina etorkizunean, pago egurrera joatea aurreikusten ari da urkiarekin ere arazoak agertzen hasi baitira. “Material globalizatua da; Finlandiatik datorrena. Materialak oso neurri zehatzekoa izan behar du eta dezima gutxiko aldeak arazo handiak ekartzen dizkit panderoen ekoizpenerako”.

Txapak

Inguruko pandero jotzaileekin bilduz, soinu mota jakin baten bila joan zen Agirre. Material ezberdi-

nak probatu zituen: burdina eta latorria, besteak beste. Hainbat proba eginda, materiala tenplatu eta egonkortuta aurkitu zuen gustuko txapa. Xaflak egiteko trokel bat ekarri zuen jarraian eta, gaur egun, bi motatakoak egiten ditu: doratuak eta zu-riak. Baita ilara bat edo bikoak ere. “Materiala berdina da, baina bukaerako bainu ezberdina ematen diot. Praktikan biziagoa da nikelatua edo txapa zuria, baina oso alde txikia dago batetik bestera”.

Larrua

Joxe Manuelen iritziz, perkusio instrumentuen faktorerik garrantzitsuenak larrua da. “Larruak agudotan, soinu kalitatean edota armonikoan eragiten du. Nik antxume larrua erabiltzen dut, ardi edo arkume larruak grasa gehiago daukalako eta horrek hezetasuna errazago hartzen duelako”. Antxume larrua mundu guztian erabiltzen da, kalitatezko zatitara definitua baita. Animalia guztiek daukate larru ezberdina, eta gorputzaren atalaren arabera, elastizitatea ere ezberdina da. Horregatik pandero guztiak ezberdinak dira. Nahiz eta material berekin egin, ez dira bi pandero soinu berdinekoak aterako. “Larrua beti bizirik dago eta eguraldiaren arabera, aldaketa etengabe dago beti panderoa”.

Kolorea

Hasieran pandero naturalak egiten bazituen ere, laster sartu zen kolorea Joxe Manuelen etxera. Ezusteko bisita bat jaso zuen; Segurako Laureano Telleriarena. Segurako elizan, pulpitu azpian, pandero batzuk agertu ziren eta haiek erakutsi zizkion. “Oso kuriosoak ziren; orain baino handiagoak eta batzuk egurra margotuta zeukaten; margo ezberdinekin, zintekin... ideia hartzeko bali- io izan zidaten”. Horrela hasi zen panderoen egurra tindatzen eta gaur egun 6 kolore finkatu ditu: gorria, berdea, urdina, beltza, morea eta naturala. Denbora bat pasata, beste salto bat eman zuen Agirrek zer bait berria aurkeztekotan. “Etxean larruak tindatzen hasi nintzen. Munduan zehar erabiltzen da teknika hori, Ameriketara esaterako, ebanjelis- tek asko erabiltzen dute larrua tindatzea”. Marmoleztatzeko ideia ere hortik etorri zitzaion. Pintura nahasketa berezia egiten du pandero bakoitzeko eta horrek jokoa ematen du larruaren tindagaiare- kin konbinaketak egiteko. Ikusten da tendentziak pandero tindatueta jo duela. “Berritasuna izan da; moda modukoa da, arropetan bezala. Etorri izan zaizkit pandero jotzaileak gonaren tonuko panderoaren bila. Jendeak garrantzia ematen dio horri eta gaur egun koloretako eta marmoleztatu- tako panderoak gehiago saltzen dira.



Joxe Manuel Agirre



Joxe Manuel Agirre

Tamaina

Tamaina ezberdinetako panderoak egiten ditu Agirrek; normalean 23 eta 27 cm-ko diametroa dutenak. Dena den, handiagoak ere egin izan ditu: 12 eta 14 hazbetekoak, baita eskaeraren arabera espezializatutakoak ere.

INSTRUMENTUEN BILAKAERA GAUR EGU- NERA

Galiziako, Valentziako edo Kantabriako panderoei larrua josi egiten diete soka batekin. “Hori ez zitzaidan oso praktikoa iruditu eta danbolinaren sistema jarri nien panderoei ere: egurrezko uztai bat egin eta uztai horren bueltan larrua jarriz, beste uztai batekin presioa eginez iltzatu”. Teknikoki baliteke zailagoa izatea baina praktikoki eta estetikoki hobea iruditzen zaio Joxe Manueli eta aukera ematen dio konponketak egiteko. “Partxe bat hausten bada, uztai desmuntatu, beste bat jarri eta konponduta dago. Txapei ere kanpotik jostura jartzen diet eta horrek konponketak egiteko erraztasuna ematen dit”.

PANDERO-JOLEEI GOMENDIOA

Gomendio bat luzatu nahi izan die Joxe Manuelek pandero-joleei: txapen zuloa handitzen denean, txapak larrua jotzen du eta azkenean apurtu egiten da. Ezin bada momentuan txapa aldatu, hobea da txapa hori apurtu eta kentzea.

Pandero mota ezberdinak probatzera ere animatzen ditu pandero-joleak Agirrek. “Orain gehienek bi ilarakoak erabiltzen dituzte. Badut beste modelo bat txapak jarri eta kentzeko aukera ematen duena. Orkestra handietan ikusi

nuen hori eta grabaketetarako, edo soinu bat edo beste bilatzen dutenentzat, aukera ona da”. Joxe Manuelen sorpresarako hemen jendeak ez du pandero mota hori baloratu. Edo agian jendea ez da ausartzen horrelako pandero bereziak probatzera.

ETORKIZUN BELTZA

Beltza. Horixe izan da Joxe Manuelek etorkizuna definitzeko erabili duen hitza. “Pandemiak denak bere lekuan jarri gaitu. Urte askoz dultzainarekin ibili naiz batera eta bestera, baina bestetik, artisauek moduan gizartean gero eta garrantzia gutxiago daukadala iruditzen zait. Garapen handia egon da. Lehen herrietatik deitzen zuten, antolaketa handiko azokak egiten ziren, diru inbertsio publikoak ere baziren tartean... orain ordea, guzti hori desagertu da”. Haustura handia datorrela ikusten du Agirrek. Dio “instrumentuek balioa jotzen direnean” daukatela, eta ezin badira jo, ez daukate balio. Ohitura aldaketak ere bistakoak dira. Lehen musikariak garrantzia handia zuen edozein lekutara joanda ere, jendea zain egoten zen. Gaur egun ordea, askotan kalejirak inork kasurik egin gabe egiten dituzte musikariek, eta horrek tristura ematen du. Haur asko hasten dira perkusioa edo panderoa ikasten, gerora ordea, ume horiek irteera bat behar dute, baita ereduak ere. “Nik izan nituen nire ereduak eta denborarekin ikasi dut jendea-ri ikusiz asko ikasten dela, bai zer egin behar den eta zer ez den egin behar”. Joxe Manuelek argi du: Jendearen beharrak asetzea da bere lana eta bezeroak eskatzen dionera egokituz, lanean jarraituko du orain arte bezala.



ANDOITZ ANTZIZAR

Birusak eraginda, herrietako festa eta erromeriak bertan behera geratu dira. Garai bateko erromerien antza hartuko ote dute aurrerantzeko festek? «Kontaktuko musika da gurea (...) apaiza etorri beharrean polizia etorriko zaigu esatera helduta ezin dugula dantzarik egin; garai batean erlijioagatik zena, gaur egun osasunagatik da, eta agian, fandango eta arin-arinak soilik dantzatu beharko ditugu, tango eta pasodobleen orde»

Tolosaldeko Ataria 2020/07/17

JULEN ALONSO

Itxialdiak ez zion aukerarik eman *Sutan dantzan* ikuskizuna estreinatzeko. 4 hilabete luze eta gogor pasa ondoren, Aian igo zen oholtza gainera uztailaren 24an. «Alde ona ere izan du etenaldiak. Etxean egon garen hilabeteetan ideia berriak sortu zaizkigu, eta ikuskizuna borobiltzen lagundu digute». Oztopoak oztupo, ikuskizunekin aurrera jarraituko du Julenek eta ikusleei musika emanaldietara lasai joateko gomendioa egiten die. «Jendea kontzertuetara etortzera animatu nahi nuke. Zuzenekoak ez da izango diskoan entzun dezaketena berdina, diskoan jasota ez dauden doinu, perkusio eta efektuak gehitu baitizkiegu abestiei, eta dantzak ere indar berezia ematen dio emanaldiari».

Karkara.eus 2020/07/24

XABI SOLANO MAIZA

Ereñozun jaio zen Xabi eta bere jaioterriari es-timu berezia dio. Auzoan trikitia gutxi entzun du, baina hala ere arrebak eta biak soinu txiki-ri eutsi diote. «Ereñozun beti akordeoia izan da nagusi. Imanol Kamio izeneko musika irakasle bat Ereñozuko da, eta auzoko guztien irakasle izandakoa da. Niri berak irakatsi zidan solfeoa. Auzoan tradizioa akordeoia izan da beti. Nire ga-raian, trikitiarekin ibiltzen ginen bakarrak arreba eta biok ginen. Auzoko ardi beltzak ginen. Beste guztiek akordeoia edota pianoa jotzen zuten». Pandemiak eraginda uda arraroa izan badu ere, ez da geldirik egon ereñozuarra. «Bi trikiti liburu ditut, eta, orain, hirugarrena prestatzen ari naiz. Partitura pila bat prestatzen nabil. Horrekin ba-tera, disko bat ere kaleratuko dut, aspaldiko fan-dangoak eta arin-arinak berrituko dituen».

Berria.eus 2020/08/04

JUAN RAMON AZPITARTE “IMUNTZO”

Martitxeko Umansoro baserrikoa da jaiotzez, hortik datorkio Imuntzo goitizena. Txikitatik gustatu izan zaio soinu txikiaren tinbrea, nahiz eta esku soinua ikasten hasi. «Solfeoa eta akordeoia ikasten hasi nintzen, orduan ez zegoelako soinu txikia irakasten zuen irakaslerik. Beraz, 14 urtera arte akordeoia eta solfeoa ikasten jardun nuen akademia batean. Gero, musika ikasketekin jarraitzeko, soinua aldatu eta handiago bat ekarri beharra neukan. Ordurako, Sakabi trikitia erakusten hasia zen Azpeitian, eta soinu handia erosi beharrean, soinu txikia erosi eta Sakabirengana joan nintzen ikastera. Harekin urtebete ibili nintzen. Gero, Laja ere hasi zen soinua irakasten, eta harekin beste bi urtez jardun nuen instrumentuaren teknika ikasten; Laja beti izan zen maisu handia». Faustino Azpiazu *Sakabi*, Iñaki Garmendia *Laja* eta Joakin Errasti *Epelarra* izan ditu irakasle.

Maxixatzen.eus 2020/08/09

LURDES ALKORTA

Txikitatik jaso du Lurdesek trikiti munduarekiko afizioa. Arizterrazura askotan joaten zen txikia zenean eta gaur egun ere «edozein musika klase entzuten dut, eta dantza egitea ere asko gustatzen zait, jotzea bezainbeste». Trikitia ikasten hasi zenetik, gaur egun arte bere bizitzaren parte izan da instrumentua. «Garai hartan trikitia ez zen solfeo bidez ikasten, aurrez aurre ikasten genuen». Lehenengo hiru-lau urteetan Sakabi izan zuen maisu eta ondoren beste hiru urte egin zituen Lajarekin. Gaur egun, Hernaniko musika eskolako trikiti irakaslea da eta kontzertuak ongi ateratzen direnean, edota ikasleak txapelketetan postu onak lortzen dituztenean, beteta sentitzen da. «Ez dago ikasle batek zerbait eskatu eta hura irakastea baino ezer hoberik».

Uztarria.eus 2020/09/02

UDAZKENA

IRAILAK

21

ABENDUAK

21



Xabi Aburruzaga EHMBE Sariaren irabazle

📍 Gasteiz

🕒 Irailak 30

Xabi Aburruzaga trikitilariak (Portugalete, 1978) jaso du 2019ko atzeratutako edizioari dagokion disko onenaren saria, Euskal Herriko Musika Bulegoa Elkartearen (EHMBE) eskutik. "Bost" diskoa goraipatu dute, mundura ateratzeko Aburruzagaren trikitiaren imaginario zabal, aberats eta erakargarria erakusten baitu bere azken lanak.

Xabi Aburruzaga saria jasotzen



Hauspo Eguna Arrasaten

📍 Arrasate

🕒 Urriak 3

Arrasateko Trikitixa Eskolaren burutazioa izan da trikitiaren bueltako jaialdia antolatzea. Alde batetik, eskolaren berri emateko, eta bestetik, 2020. urtean ezin izan delako bestelako ekimenik burutu. Bi urte oholtzara igo gabe zaramatzan Sorginak taldeak eman zion hasiera egunari. Mimo handiarekin prestatua zuten emanaldia txalo zaparradarekin eskertu zuten herritarrek. Galiziatik etorritako Tanxugueiras taldearen eta AMAK taldearen emanaldiek boroildu zuten Hauspo Eguna. Jaialdia antolatzeko, Ibai-Arte elkartearen babesak izan dute, kulturak pairatzen duen egoera larriari bultzada eman nahi izan baitiote.

Sorginak. Hauspo eguna Arrasaten



Argazkia: goiena.eus

"200 BAIETZ" erronka, Hauspotuz Tolosaldeko Trikitixa Elkartearen eskutik

📍 Tolosaldea

Pandemiaren beste ondorio bat Tolosaldeko trikitixa eguna ezin ospatu izana. Martxoaren 7an, trikiti-zaletasuna sustatzeko asmoz, "Herria Hauspotuz" ekimena gauzatu zuten kalejira eta bazkaria eginez. Udazkenean ordea, elkartzea ezinezkoa zela ikusirik, antolatzaileak sare sozialen bidez luzatutako erronkari Euskal Herri osoko trikitilari eta pandero-joleek erantzun bikaina eman diote eta trikitiaren bueltan 200 lagun baino gehiago martxan jartzea lortu dute. Bejondeizuela!

Oñatiko XII. Trikiti jaialdia pandemiaren ondorengo lehenengo jaialdia

Urriaren 17an, Oñatiko Santa Ana antzokian ospatu da jaialdia. Pandemia egoerak baldintzatuta, aretoaren aforoa murriztuz bi emanaldi eskaini dituzte parte-hartzaileek. Agurtzane eta Ion Elustondo, Jauregi, Gozategi eta Arros-pide, Xabi eta Kristina Solano DZ-arekin, Araitz eta Josu Etxaniz, Xabier Etxaniz eta Leire Larrañagak lagunduta, Saioa Lizarralde eta Maddalen Arzallus eta Laja eta Lutxurdio izan dira oholtza gaineko protagonistak.

Oñatiko XII. Trikiti jaialdia
Argazkiak: Ibon Errazu



San Jose Trikiti Jaialdiaren XXX. urteurrena azaroan

Pandemiak eraginda martxoaren 21ean egitekoa zen San Jose Trikiti jaialdia bertan behera geratu zen. Dena den, azaroaren 28an ospatzeko modua izan da, egoerak derrigortuta bi pase eginez. Urteurren borobila izaki, antolatzaileek aipamen berezia egin diete urte guzti hauetan talde ezberdinetako erreferente izan diren Joxe Mari Iriondo, Mari Karmen Odriozola, Joxe Alkain, Joxe Mari Otermin eta, nola ez, azken urteetan hainbeste lagundu duen Azpeitiko Udalari. Bertaratutako guztien gozamenerako, emanaldi borobila eskaini dute Unai Dorronsoro, Martin, Motriku eta Pilarrek, Miren eta Roberto Etxebarriak, Asier Gozategi eta Aitzol Arrospidek, Estanga anai-arrebek, Astiasaran osaba ilobak eta Aitor Aiastuik eta jaialdiko sorpresa izan diren Joxe Luis Garmendia *Laja*, Eugenio Gisasola *Lutxurdio*, Aitziber Otegi eta Ibon Errazu *Ubite txok*. Covid-19ak ekarri duen beste berrikuntza bat, bertaratzerik izan ez zutenek, jaialdia streaming bidez zuzenean jarraitzeko aukera izan dela aurtengoa aitb.eus atarian.

San Jose Trikiti jaialdia
Argazkiak: Ibon Errazu.



Jose Mari Urbietta Iburguren Egañazpi pandero-jolea hil da

📍 Zestoa

Abenduaren 11an zendu zen Jose Mari Urbietta Iburguren *Egañazpi* pandero-jole eta jazpan-jolea, 70 urterekin. Joxe Mari Urbietta, *Egañazpi* pandero-jole ezagunaren semea zen. 1980. urtean Euskal Herriko Trikitixa Txapelketa Nagusian parte hartu zuen Jose Mari Urbietak, Miren Etxaniz trikitilari Hernaniarrarekin batera.



Argazkia: Jose Mari Urbietta Iburguren

Euskal Herriko Trikitixa Elkartaren berrikuntzak

📍 Zarautz

Logo berria

EHTeren Zuzendaritzatik etorritako eskaera aintzat hartuta, Elkartaren logoa berritu da, aurpegi berritze moduan ulerturik. Iker Torres ilustratzailer eta diseinatzailearekin hainbat bilera eta lanketa egin ondoren, Zuzendaritzak berak bozketa bidez erabaki du etorkizunean zein logo berrik aurkeztuko duen Euskal Herriko Trikitixa Elkartea.

Azpeitira leku aldaketa

Azken bi urteetan Azpeitiko Udaletik jasotako proposamena aztertu ondoren, dena ondo bidean, 2021erako, Elkartaren egoitza berria Azpeitiako Basazabal jauregian izango da: Enparan kaleko 18.ean, 1. solairuan. Dokumentazioari eta artxiboari ekingo dion Elkartea paralelo bat sortu da "Soinuaren Hotsa Kultur Elkartea" izenarekin. Modu horretan, Trikitixa Elkartea orain arteko lanketan ariko da, eta Elkartea berria dokumentazio lanetan ariko da, Trikitigioren dokumentalaren bidetik. Helburua bi elkarteak aterki bakarraren



GALBAHEA

ELIZAGOIEN AHIZPAK:

5 eta 7 urterekin hasi ziren trikitixa eta panderoa ikasten. Irunek irakaslearekin klaseetan ikasten zuena etxean erakusten zion ahizpa gazteari. «Batak bertzeari erakutsi diogu instrumentuak jotzen». 10 urte inguru zituztela txapelketetarako saltoa eman zuten eta gaur egun erromerietan dabilta plazaz plaza. Elizagoiendarrek pasioz bizi dute trikitia. «Umetan telebista ikusten baino askoz ere ordu gehiago eman genituen musika jotzen».

Naiz irratia (musikaria). 2020/09/15

FREDI PAIA:

Tomas Zitzeren biografia liburua idazteko Arrizabalagarren familiarengana jo zuen Fredi Paiak informazio bila. «Kepa Arrizabalaga pandero-jolearen aita zela nekien nik, ez besterik. Familiarekin bildu eta ahizko memoria batu nuen lehenengo». Garrantzitsua zen garai hartako testuinguruan kokatzea; garai hartako Plentzia oso ezberdina baitzen kulturalki eta soziologikoki. Bizimodu gogorra izan zuen Tomasek. 14 urterekin umezurtz geratu eta esan liteke soinuak eman ziola aurrera egiteko indarra. «Tomas Bilbora iritsi zen aita emandako 2 bidai txartel ordaindurekin, zapi batean ogia, sagar bi eta 14 pezetarekin. Orduan 2 urtetarako dirua zen hori. 14 pezeta balio zuen soinua ikusi eta diru guztia gastatuz huraxe erosi zuen. 14 urterekin eta soinua jotzen jakin gabe, trena geltokira heldu zenerako aita emandakoa baino diru gehiago zeukan».

Euskadi irratia. Arratsean 2020/09/18

azpian elkarlanean aritzea da. Laguntza ekonomikoa lortuz gero, asmoa da elkarte berri honetarako lanaldi erdiko beste lanpostu bat sortzea.

Webgunea berritzen

Elkartaren webgunea erabat berritzea da helburua, baina zatika egingo da lan hori, urtez urte. Aurten lehen orria eta zati bisualenak aldatuko dira, itxura fisikoa, nolabait esateko. Egitura sakinagoa, berriz, datozen urteetan aldatuko da. Gaur egun, webgunearen ezkerrean dagoen *Soinuaren Hotsa* (garai bateko trikimailua) entziklopedia birtuala, askoz eskuragarriago eta dinamikoago egitea da helburua. Kontratatu nahi den hirugarren langilea informazio zahar berriarekin entziklopedia hori elikatzen ariko da besteak beste.

DISKO BERRIA
ZERO



“Soinu txikia, trikitixaz haratago” esaldiarekin laburtzen du Xabier Malbadik bere lehen diskoaren edukia. 10 urte eman ditu soinu txikiarekin trikitixaz haratagoko musikan zentratzen eta oztoporik handienak instrumentuan bertan aurkitu ditu. 7 kantuz osatutako diskoan erritmo eta soinu txikiarekin egiten dituen jolas ezberdinak aurkitzen dira. Diskoaren aurkezpena sare sozialen bidez egin du Xabierrek eta nahi duenak diskoa eskuagarri dauka xabier.malbadi@gmail.com edo @xabi_zar sare sozialetako kontuetara idatziz.

DISKO BERRIA
SARRABETE



SarraBete 2020an sortutako taldea da, gaur egun euskal folk musikan presentzia handirik ez duen instrumentu bat berreskuratu asmoz, zarrabetea hain zuzen ere. Hauek dira hiru taldekideak: buzukiarekin Bilboko Pablo Bueno, Kolme Katu edo Kuttune folk taldeetako kidea, zarrabetearekin Gorka Bravo Barreiro, zarrabete irakaslea eta hau ere Kolme Katuko kidea, eta azkenik Arrasateko Leire Etxezarreta, taldeko abeslari eta perkusio jolea, Kepa Junkera urtetan lagundu duen Sorginak taldeko kidea. Diskoan, pandero ezberdinak erabiliz, fandango, arin-arin edota kalejira doinuak ere aurki daitezke. Taldearen lehen disko hau beraien kontzertuetan edo sare sozialen bidez eskuratu daiteke.

LIBURU DISKOA:
KORRONTZI & Xabier Amuriza. KOPLARIAK

Disko-Liburua kalera-tu dute Xabier Amuriza eta Korrontzik elkarlanean. Orain arte Korrontzik daramatzan 16 urteetan akaso garrantzia handiagoa eman zaio arlo instrumentalarri eta ez horrenbeste letrei. Lan berri honek Xabier Amurizaren testuak eta letrak bildu ditu liburuan eta modu honetan, koplaintzak trikitixaren munduan historikoki eduki duen garrantzia azpimarratu nahi izan da; bide batez, taldearen errepertorioa hornituz. Lan berria ohiko liburutegi eta disko dendetan aurkitu daiteke, edota korrontzi@gmail.com helbidera idatzita etxean jaso daiteke Amurizak eta Korrontzik sinatuta.



DISKO BERRIA:
MIREN ETA ROBERTO ETXEBARRIA: “Hamaikatxu kopla pandero baten konture!”

Kopla zaharrek, ahotsak eta panderoak osatzen dute lan honen ardatza, Roberto Etxebarriak sortutako doinueta oinarrituz, eta aire bereziz jantzitako doinu herrikoiren bat edo beste tartekatuz. Miren eta Roberto Etxebarriaren ahots eta panderoen soinuez gain, soinu txikiaren parte-hartzea pisu handikoa da; gitarra, kontrabaxua, whistle-ak, txistua eta bibolina bezalako tresnak lagunduta, herri musikaren barruan kokatu daitekeen lana, folk kutsuaz jantziz. Lan honetan nabarmenezkoa dena koplen txertatzea da, modu berritzailean ematen baita hainbat kantutan.



DISKO BERRIA:

BIZITZAZ GOXATU




Trikidantz erronomia talde nafarrak bere bigarren diskoa kaleratu du. Trikitixa instrumentu nagusi hartuta, betiko fandango, arin-arin, mexikar eta erritmo dantzagarriak ere sartu dituzte beraien azken lanean. Plazaz-plaza ibiltzen hain ohituta dagoen taldeak, aurtan pandemiak beraien egunerokotasuna gogor zapaldu duen honetan, disko berria kaleratzeko aprobetxatu du. Crowdfunding kanpainaren bidez lortu dute diskoa kaleratzeko beharrezkoa zuten diru kantitatea eta trukean opariak egin dizkiete laguntzaileei.

LIBURU-DISKOA:


XABI SOLANO MAIZA TRIKITIXA LIBURUA III

Xabi Solano Maiza trikitilariaren metodo didaktikoaren hirugarren liburua argitaratu dute 5GORAk eta Elkarrek. Bildumari jarraituz, liburu-disko honek Xabi Solanoren 13 piezaren partiturak (bai solfeo zein zenbakizko sisteman) eta argazki bilduma eder bat biltzen ditu. Hirugarren liburu honi dagokion diskoak, berriz, "Solano anai-arrebak: Zaharrak berri" du izenburu. Bertan, herriko kutsuko 8 doinu biltzen dira.



DISKO BERRIA:

UNAI ETXEBARRIA: MUSU BAT



Unai Etxebarria Basauriko musikari gazteak, bere bigarren lana kaleratu du. Berak konposatu, nahastu eta ekoiztutako disko honetan, trikitixaren presentzia nabaritzen da; horixe baita hain zuzen ere, txikitatik aitarekin jo duen instrumentua. Amodiozko letrak eta kritika soziala eginez, garrantzi berezia dauka ahotsak. Abenduaren 25ean aurkeztutako diskoa, unaietxebarriamusikaria@gmail.com helbidera idatzita eskuratu daiteke.

PARTITURA LIBURUA:

PAPERETIK SOINURA (3)

Soinu txikiarekin jotzeko piezak biltzen dira partitura liburu honetan. 24 kanturen partiturak dira, partitura bikoitzak: solfeoz eta zenbakiz (48 partitura denera, beraz). Aurreko bi liburuetan bezala, Andoitz Antzizarrek hartu du Euskal Herriko Trikitixa Elkarteko zuzendaritzan erabakitako 24 kantuen melodiak paperera eramateko ardura. Liburu hau soinu txikiaren ikasle zein irakasleei eskainia dago, proposatzen diren kantuen bitartez trikitixarekin gozatzen eta bazterrak alaitzen jarraitzeko.





HAMAIKA IKUSTEKO!



HAMAIKA IKUSTEKO!

Mexikon, Chihuahuako Ojinaga hirian Musikaren Paseoa etorbidean eskultura erraldoi bat jarri dute. Hiru ilarako esku soinu laranja bat da, abaniko baten itxuran hauspoa zabalik duena. Garabi batek lagunduta egin behar izan dituzte ustez burdinezkoa den eskultura hau jartzeko lanak. Soinu zaleek bizitzan behin bertara joan eta argazkia ateratzeko ohitura hartuko ote dute?



IRAILAK

21

ABENDUAK

21

altzaporru
ALTZAPORRU

2020
URTEKARIA

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEA



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria
eta Kirol Departamentua

